

ELA – LAB – ESK – STEILAS – Etxalde – Hiru – CGT-LKN – CNT

**PENTSIODUNEN MUGIMENDUAK URTARRILAREN 15EAN  
DEITUTAKO MOBILIZAZIOETAN PARTE HARTZEKO DEIA EGIN DU  
EUSKAL GEHIENGO SINDIKALAK**

Euskal Herriko pentsiodunen mugimenduaren mobilizazioak hasi zirenetik lau urte pasatu dira. Eta orain mugimendu honek, berriro, urtarrilaren 15ean mobilizatzeko deia egin du.

Dokumentu hau sinatzen dugun sindikatuok bat gatoz mobilizatzen jarraitzeko beharrezkin, iazko abenduan onartutako lan-erreformari eta pentsioen erreformari ezetz esateko.

Lan-erreformak, Kongresuan baliozkotu behar denak, ez ditu aurreko erreformak indargabetzen, ez ditu ukitu kaleratze indibidual eta kolektiboa erraztu eta merkatu duten neurriak, eta Estatuko hitzarmenen aplikazio-lehentasuna mantentzen du lurraldekoen gainetik. Gainera, malgutasun-elementu gehiago ematen dizkie enpresei, aldizkako kontratu finkoa benetako arrisku bihurtuz.

Pentsioen erreformak erretiro aurreratuak murrizten ditu; 2011ko erreformako pentsioen murrizketak ez ditu indargabetzen (erretiro-adina atzeratzea, kotizazio-aldiak handitzea pentsioaren % 100 eskuratzeko eta oinarri arautzailea kalkulatzeko); 2022an erosteko ahalmena 3 puntu baino gehiago galtzea dakar; pentsioak berriro murrizteko mehatxua mantentzen du, Belaunaldien arteko Ekitate Mekanismo berriarekin. Gutxieneko pentsioek miseriazkoak izaten jarraituko dute, eta oso urrun daude aldarrikatzen daramatzagun 1.080 euroetatik. Eta pentsioen pribatizazioan sakontzeko atea zabalik dago oraindik.

Horregatik guztiagatik, ELA, LAB, ESK, STEILAS, Etxalde, HIRU, CGT-LKN eta CNT, beste behin ere, pentsiodunen mugimenduaren eskaerak babesten ditugu, eta dei egiten dugu urtarrilaren 15ean gure lurraldeko hainbat herritan egingo diren mobilizazioetan parte hartzera.

Lan eta pentsio erreformei EZ!  
Burujabetza bizitza eta lan duinetarako.

Euskal Herria, 14 de enero de 2021